

**Kaixo Joxe Mari, zer moduz?**

Ondo eta zu?

**Ondo ondo.**

**Dakizun bezala galdera batzuk egingo dizkizut zure ustez nola izango den zumaia 2050rrean. Preparatuta al zaude?**

Bai.

**Lehenengo galderarekin hasiko gara orain.**

**1.Zein izango da hizkuntza nagusia Zumaian?**

Nire ustez, hizkuntza nagusia euskara izango da, baina garrantzitsuena hitz egiten jarraitzea da. Ez baldin badugu hitz egiten galdu egingo da hizkuntza hori.

**2.Sozialak izaten jarraituko dugu ala bakoitza bere etxean geratzeko ohitura nagusituko da teknologiaren ondorioz?**

Nire ustez, sozialak izaten jarraituko dugu baina beste pertsona batzuk geroz eta gehiago geldituko dira etxean, eta horrek tristura ematen dit, harreman pertsonalak ez dituztelako edukiko.

**3.Orain pixka bat ekonomiaren inguruan hitz egingo dugu. Zure ustez, euroa erabiltzen jarraituko al dugu?**

Pentsatzen dut, jende gehienak dirua erabili beharrean, mugikorra erabiliko duela ordainketak egiteko.

**4.Gobernuak jarraituko al du zerbitzu publikoak (hezkuntza, osasungintza...) ordaintzen? Edo herritarrok ordaindu beharko ditugu?**

Nire ustez, orain bezala gobernuak gutxi ordainduko du eta ordainketa gehienak herritarrok egingo ditugu.

**5.Bizimodu kontsumista bat izaten jarraituko al dugu?**

Bai, gertatzen dena da arazoa da, gauzak geroz eta garestiago daudela eta soldatak geroz eta gutxiago.

**6.Orain asko entzuten dugu gasolina oso garesti dagoela eta horrelako gauzak. Hori dela eta, zure ustez, kotxeak gasolina erabiltzen duten kotxeak edo kotxe elektrikoak erabiliko dira?**

Adituak diotenez, mundua gutxiago kutsatzeko kotxe elektrikoak hobeagoak dira. Nire ustez, orain ezagutzen ditugun kotxeak, gasolinazkoak, desagertzen joango direla.

**7.Zumaia herri turistiko bat bihurtzen hari da, gehienbat hondartzagatik, Itzurun adibidez. Horregatik zure ustez hemendik 25-30 urtera bainatzea posible izango al da bainatzea?**

Bai, posible izango da bainatzea orain bezala. Gertatzen dena, gure esku dagoela, kutsatzea ura eta garrantzitsuena planeta garbi mantentzea da. Horrela bainua orain arte ezagutu dugun bezala jarraitzeko.

**8. Klima aldaketaren inguruan, neurri zorrotzagoak hartuko ditugu edo beste alde batera begira jarraituko dugu?**

Ez, neurri berriak hartuko ditugu, baina arazo hau ez da konponduko egun batetik bestera, hau urteak kostatuko zaizkio konpontzea eta urte asko pasa beharko dute aldaketaz ohartzeko.

**9.Orain San Telmoak datozela, zure ustez jarraituko al dira herriko festak ospatzen San Telmoak bezala?**

Bai, azkenean festak garrantzitsuak dira, modu bat delako urtean zehar daukagun arazoez pixka bat ahazteko, ez larritzeko eta deskonektatzeko tresna bat.

**10.Baita orain oso famatua egiten ari da arropa online erostea ere zentro komertzialetara joatea, horregatik zure ustez ze gertatuko da herriko dendekin?**

Hor kezka handia daukak zergatik or ikusten dudana da, pertsonak geroz eta gehiago etxetik egiten dutela erosketak, eta or arazoa ikusten du, batez ere denda denda txikientzat.

**Eskerrik asko zure denborarengatik eta hau izan da dena.**

Bale eskerrik asko zuri ere.

**Beno agur, eta ondo pasa San Telmoak.**

Bai berdin agur.

